

## Neandertalen garuna *Homo sapiens*ena baino motelago hazten zen

Asturiaseko [El Sidrón kobazuloan](#) aurkitutako haur neandertal baten eskeletoak datu baliagarriak eman ditu hobeto ezagutzeko nola garatzen zen neandertalen garuna. Antza, hil zenean 7 urte eta 8 hilabeteko adina zuen haur neandertalak, baina bere garunak bolumenaren % 87,5 baino ez zuen lortu artean. Gure espeziean, adin horretarako ia guttiz garatuta dago garuna, eta 5-6 urteko haurrek izaten dute neandertalaren antzeko garapena.

Garunaren jaio osteko garapen motela [gure espeziearen ezaugarritzat](#) jo izan da urte askoan. Beraz, neandertalen garapen-denbora gurea baino luzeagoa izateak galdera berriak ekarriko dizkie, seguruenerik, ikertzaileei.

Izan ere, argi dute garunaren garapen txikiago hori ez dela haur neandertala gaixo zegoelako. [Hala adierazi du Science aldizkarian](#) Antonio Rosas Madridilgo Zientzia Naturaleko Museoko paleoantropologoak. 111 cm-ko altuera zuen eta 26 kg inguru pisatzen zituen; haur indartsua zen. Besoen, hanken eta hortzen garapena ere adin bereko *Homo sapiens* haur baten parekoa zen.

Duela gutxi, Atapuercako ikerketa batek iradoki zuen *Homo antecessor*ek hazkuntza motela izan zuela duela 800.000 urte. *Homo erectus*ek (duela 1,6 milioi urte bizi zen espezieak), ordea, 8 urterako osatua izaten zuen bere hazkuntza. Hortaz, baliteke *H. erectus*aren ondoren eta *H. antecessor*aren aurretik sortu izana gure espeziearen hazkuntza-eredua.

Ikertzaileek azaldu dutenez, garuna da giza gorputzean energia gehien kontsumitzen duen organoetako bat. Garun handi bat garatzea, hortaz, gorputza hazteko bideratzen den energiarekin lehiatzen da. Neandertalek ere nolabaiteko modua aurkitu beharko zuten gastu energetiko horri aurre egiteko, eta garunaren hazkuntza-denbora luzatzea gastu metabolikoa banatzeko modu bat izan zitekeen. ●



1994an El Sidron kobazuloan aurkitutako 13 kideko familia horretako parte da oraingoan aztertutako haurra, goiko argazkiaren erdian bere amaren eta anaia txikiaren aurrean irudikatuta azaltzen dena. Behean, haren hezurdura.  
ARG.: MNCN-CSICeko Paleontologia Taldea.